

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

324 Zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>>2018 Maiatza

## Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

> Herriko udalekuetan izena emateko epea irekiko da

> IV. Book Trailer Lehiaketako sari banaketa

> BATEGIN kanpaina 2018ko uda solidarioagoaren alde



## BATEGIN kanpaina 2018ko uda solidarioagoaren alde

BATEGIN, partaidetza solidarioarako proposamenak izenburupean, Bolunta agentziak, beste urte batez, jarduera solidarioa sustatzeko kanpaina abian jarri du aurten. Edozein pertsona interesatuk bere oporraldiaren zati batean proiektu solidario batekin kolaboratu ahal izango du, esate baterako, auzo-landegiak, ingurune ekitaldiak, udalekuak, lankidetzako programak, familia-harrerak, nazioarteko brigadak, turismo solidarioarako ekimenetan.... Informazio guztia: <http://bategin.org/es/>

## IV. Book Trailer Lehiaketako sari banaketa

Maiatzaren 20an, 11:00etatik 13:30era, Getxo Elkartegian (Ogoño kalea 1, Areeta) Getxoko IV. Book Trailer Lehiaketako sari banaketa ospatuko da. Bi kategoria daude lehiaketan (16tik 18 urtera eta 12tik 15 urtera) eta lehenengo saria 300€koa izango da, talde osoarentzat, eta bigarren saria 50€ko bonu bana Romoko Gobelaurre liburu-dendan erosketak egiteko. Publikoaren saria, abentura kamera bana izango da taldekideentzat, eta bakarra izango da bi kategorietan. Maiatzaren 11n amaituko da lehiaketara lanak aurkezteko epea. Lehiaketa hau Udaleko Gazteria eta Euskara Sailek eta Udal Liburutegiek antolatu dute, Kalabazan Kultur Ekimenak elkarterekin elkarlanean. Urrian jarri zen martxan lehiaketa eta epe honetan Getxoko hainbat eskolatan eta Gauegun Gaztelekuak Book Trailerra zelan egin ikasteko tailerrak eskaini izan dira. Lehiaketa honen helburua gazteen artean irakurzaletasuna euskaraz sustatzea da, baita sormenaren bidez euren interesak eta kezak islatzeko espazioa eskaintzea. Aurtengoa hirugarren edizioa da eta aurreko edizioetan parte hartze handia izan da, aldi bakoitzean 30 bideo inguru aurkeztu dira, 90 gazte inguruk eginak.

## BEKAK SARIAK

\* **PLURAL + Youth Video Festival 2018**, Nazio Batuen Zibilizazioen Aliantzak (UNAOC) eta Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak (IOM) deituta, 9 eta 25 urte bitarteko gazteentzat. Bideo orijinal eta sortzailerak bidali beharko dituzte, migrazioa, aniztasuna eta inklusioa ardatz dituztenak. Hiru kategorio dira: 12 urte artekoak, 13tik 17 urtera eta 18tik 25 urtera bitartekoak. Izenematea: ekainaren 3 arte. <http://www.injuve.es/convocatorias/premios/plural-youth-video-festival-2018>

\* **James Dyson Award Nazioarteko Lehiaketa**, James Dyson Fundazioak deituta ingeniari eta diseinuko ikasle eta lizentziatu berrientzat. Beren asmakizun berritzaileak aurkeztu beharko dituzte (arazo bat konponduko duen zerbait diseinatu beharko dute). Inskripzioa egiteko epea: uztailaren 20 arte. Tel.: 91 590 37 66 / 648 234 648 eta <https://www.jamesdysonaward.org/es-es/how-to-enter/>

### Romoko Gaztelekuaren Programazioa

#### Maiatza

Hilak 5, larunbata: FUTBOLIN LEHIAKETA

Hilak 8, asteartea, eta 16, asteazkena: TAILERRA: HORMEN DISEINUA

Hilak 11, ostirala: ASANBLADA

Hilak 19, larunbata: MASTERCHEF: GAILETAK

Hilak 23 eta 30, asteazkena: HORMAK MARGOTU

Hilak 26, larunbata: IRTEERA: HONDARTZARA

### Algortako Gaztelekuaren Programazioa

#### Maiatza

Hilak 4, ostirala: TXAPELKETA: FUTBOLINA

Hilak 10, osteguna: TOPAKETA: ASANBLADA

Hilak 11, ostirala, eta 31, osteguna: TABAKORIK GABEKO HILABETE

Hilak 12, larunbata: MASTERCHEF: PATATA TORTILA

Hilak 16, asteazkena: ESKULANA: SUREZKO SUGAEK

Hilak 18, ostirala: TAILERRA: KANABIS ETA MARIHUANA KONTSUMOAK

Hilak 20, igandea: ZINEKLUBA

Hilak 23, asteazkena: MASTERCHEF: GAZTAZKO PASTELA

Hilak 25, ostirala: TAILERRA: ELKAGAI OSASUNTSUAK JATEA, DIBERTIGARRIA DA!

Hilak 26, larunbata: IRTEERA: PAINTBALL

## Herriko udalekuetan izena emateko epea irekiko da

Maiatzaren 7tik 18ra bitartean irekiko da Udaleko Gazteria Zerbitzuak 5 eta 12 urte bitarteko gazteentzat antolatutako herriko udalekuetan izena emateko epea. Udalekuak uztailean eskainiko dira Geroa Ikastolan eta San Ignazio eta Romo Herri Ikastetxeetan, bi aste txandetan banatuta zentro bakoitzean. Txanda bakoitzeko lau egunetan, txangoak egingo dira herriko kanpora. Aurten, udalekuen ordutegia honako hau izango da: 09:00etatik 17:30era; eta gainontzeko egunetan, 09:00etatik 14:00etara.

Inskripzioak online egin daitezke ([www.getxo.eus/gazteria\\_helbidean](http://www.getxo.eus/gazteria_helbidean)); halaber, Herritarren Arretarako Bulegoetan eta Gazte Informazio Bulegoan ere izena emateko orriak esku-ragarri izango dira, nahi izanez gero, izena bertan emateko.

Eskaera kopuruak plaza kopurua gaindituko balu zozketa egingo da. Haren emaitza ekainaren 1ean ezagutaraziko da. Behar bereziak dituzten umeei laguntza berezia izango dute. Argibideak: [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria) eta Gazte Bulegoa (Tangora Etxea, Algortako etorb. 98; tel.: 94 466 03 53).



## Udako Aisialdirako Ekitaldiak

	EKINTZA	DATAK	ADINA	PREZIOA	HIZKUNTZA	IZENA EMATEKO EPEA	INFORMAZIOA
<b>GAZTERIA</b>	Hiriko Udalekuak	Uztailaren 2tik 13ra Uztailaren 16tik 30ra	2006-2013 (biak barne)	Prezio arrunta 118€ Prezio murriztua 53€ Deskontuak daude Familia ugariarentzat	Euskara	Maiatzaren 7tik 18ra	<a href="http://www.getxo.eus/gazteria">www.getxo.eus/gazteria</a> Herritarren Arretarako Bulegoetan 944660353
<b>KUKUPRAKA LUDOTEKA</b>	Udako Programa	Ekainaren 25etik abuztuaren 31 arte Asteko 10 txanda	2006-2012	Dohainik	Euskara	Maiatzaren 7tik 18ra arte	Aretoako Eskoletako plaza 94 466 03 55 <a href="mailto:areetokoludoteka@getxo.eus">areetokoludoteka@getxo.eus</a>
<b>GAUEGUN GAZTELEKUA</b>	Ekintza Anitzak	Ekaina eta Uztaila	11-17 urte	Dohainik	Euskara eta gaztelania	Ez da beharrezko Txangoetan izan ezik	<a href="http://www.getxo.eus/gazteria">www.getxo.eus/gazteria</a> 944660353
<b>GETXO KIROLAK</b>	Jolasketan	Uztaila eta Abuztuaren	2012-2014	90€	Euskara eta Gaztelania	Apirilaren 18tik Maiatzaren 9ra	<a href="http://getxokirolak.getxo.eus">getxokirolak.getxo.eus</a>
	Udaljolasean		2009-2011	90€			
	Kiroletan		2004-2008	90€			
	Grand slam		2002-2010	90€			
	Igeriketa		4-15 urteak	26,50€			
	Pádel		1993-2004	37,40€			
Tenisa	2004-2011	37,40€					
<b>UDAL EUSKALTEGIA</b>	Euskara ikastaro trinkoak	Uztailaren 3tik 24a arte	16 urtetik aurrera	88€	Euskara	Ekainaren 1etik 27ra	<a href="mailto:euskaltegi@getxo.eus">euskaltegi@getxo.eus</a> 944646299
<b>UDAL LIBURUTEGIAK</b>	Letren Terrazak	Uztailaren 2tik Abuztuaren 31ra arte	Adin guztiak	Doan	Euskara eta Gaztelania	Ez da beharrezkoa	
<b>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA</b>	UdaTIK	Uztailaren 2tik-13ra	9-14	Doan	Euskara eta Ingelesa	Apirilaren 9tik ekainaren 1era	<a href="http://www.biscaytik.eus/udatik/bizkaia.eu">http://www.biscaytik.eus/udatik/bizkaia.eu</a>
<b>AEK EUSKALTEGIA</b>	Mailak prestatzeko ikastaro trinkoak	2018ko ekaina	16 urtetik gorakoentzat	142€	Euskara	Maiatzaren 31ra arte	944304734 <a href="mailto:lauaxeta@ae.eus">lauaxeta@ae.eus</a> <a href="http://www.aek.eus">www.aek.eus</a>
	Euskalduntzerako ikastaro trinkoak	2018ko uztaila eta iraila	16 urtetik gorakoentzat	169€	Euskara	Uztailaren 1etik ekainaren 29ra arte	944304734 <a href="mailto:lauaxeta@ae.eus">lauaxeta@ae.eus</a> <a href="http://www.aek.eus">www.aek.eus</a>
<b>ALAISE</b>	Udalekuak (Gobela Ikastolan)	Uztaila	7-12 urte	Kontsultatu	Euskara eta Gaztelania	Irekita	<a href="http://www.alaise.org">www.alaise.org</a>
	Udalekuak Centro Alaise	Ekainaren azken astea eta Abuztua	3-12 urte	Kontsultatu	Euskara eta Gaztelania	Irekita	<a href="http://www.alaise.org">www.alaise.org</a>
	Haurtzandegia	Uztaila	2-3 urte	Kontsultatu	Euskara eta Gaztelania	Irekita	<a href="http://www.alaise.org">www.alaise.org</a>
<b>BIZARRA LEPOAN</b>	Udalekuak	Ekainak 25-29 Uztailak 2-13 eta 16-17 (egunero 9:00-13:30) (asteen bitan irteera 9:00-17:00)	5-12 urte	Kontsultatu	Euskara	Maiatza (bazkideak: 7 eta 8 Ez bazkideak: 9 eta 10)	<a href="http://www.bizarralepoan.eus">www.bizarralepoan.eus</a> 944910387
<b>CLUB HÍPICO LA GALEA</b>	Udalekuak	Ekainaren 25etik uztailaren 28ra Irailaren 3tik 7ra arte	4-16 urte	350€/astea	Ingelesa eta Gaztelania	Apiriletik aurrera	<a href="mailto:info@hipicalagalea.com">info@hipicalagalea.com</a> 944603266
	RUSTYC MUSIC FESTIVAL	Ekainak 30	Adin guztiak	7€		Ez da beharrezko	<a href="mailto:info@hipicalagalea.com">info@hipicalagalea.com</a> 944603266
<b>ESKUBELTZ ESKAUT TALDEA</b>	Kanpamentua (Barbadillo del Mercado, Burgos)	Uztailaren 16tik 29ra	8-18 urte	130€-160€	Euskara eta gaztelania	Maiatza	<a href="mailto:iranzueskubeltz@gmail.com">iranzueskubeltz@gmail.com</a> 670827374
<b>IKASTOLEN ELKARTEA</b>	Udaleku Irekiak	Ekainaren 25etik aurrera	3-8 urte	Ikastolan galdetu	Euskara	Ikastolan galdetu	<a href="http://www.aisialdia.eus">www.aisialdia.eus</a> 94336937
<b>KIROLETAN SPORT</b>	Multikirola campusa Gobela kiroldegia eta Romo h.i.	Ekainaren 25etik Uztailaren 27ra	3-14 urte	30€ - 530€	Euskara eta gaztelania	Martxoaren 15etik ekainaren 15era	kiroletan sport 94 608 59 33 igor 662 940 436 <a href="mailto:igor@kiroletansport.info">igor@kiroletansport.info</a> <a href="http://www.kiroletansport.com">www.kiroletansport.com</a>
	Basket campusa 100% podvo gobela eta cp romo	Ekainaren 25etik Uztailaren 27ra	6-14 urte	30€ - 545€	Euskara eta gaztelera	Martxoaren 15etik ekainaren 15era	kiroletan sport 94 608 59 33 fran 657 77 35 23 <a href="mailto:getxosaski@gmail.com">getxosaski@gmail.com</a> <a href="mailto:admin@kiroletansport.info">admin@kiroletansport.info</a> <a href="http://www.kiroletansport.com">www.kiroletansport.com</a>
<b>UZTARRI</b>	Bizi Zaitetz Euskaraz	Uztailaren 2tik 14ra Uztailaren 16tik 28ra	8-12 urte 13-15 urte	635€	Euskara	Maiatzaren 7tik 31ra	<a href="http://www.uztarrri.eus">www.uztarrri.eus</a> 94 424 99 30
<b>ZIRRI MARRA</b>	Arte Tailerrak	Ekainaren 25etik irailaren 9ra	3 urtetik gora	Kontsultatu	Euskara	Plazak bete arte	<a href="mailto:zirrimarrarte@gmail.com">zirrimarrarte@gmail.com</a> 94 44916186 688811696

UDAKO AISIALDIRAKO EKITALDI ESKAINTZARI BURUZKO ARGIBIDE GEHIAGO:  
GAZTE BULEGOA (ALGORTAKO ETORBIDEA, 98). TEL.: 94 466 0353 . E-mail: [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus)